

BALIO PROPOSAMENA:

Zerbitzuaren erabiltzaileak herritarrak izango dira, eta haien artean bereiziko dira gehien bat kultura ezberdin batetik datozen pertsonak.

Gure proiektuekin, gure herriko herritarrei hornitu nahi diegu nazioarteko produktu berriekin, hau da, gure helburua da beste kulturetako janaria hona ekartzea.

Alde batetik, gure balioa kuantitatiboa da gehien bat, hainbat produktu beste supermerkatuekin konparatuta askoz ere merkeagoak direla, beraz, gure produktuen prezioak kalitatearekiko oso onak dira, honen ondorioz, lehiakideengandik bereizi egiten gara.

Bestetik, baita ere kualitatiboa da, gure produktuak bereziak eta erakargarriak direlako, herri desberdinekoak direnez jendeari atentzio deitzen diete eta beti edukiko dute probatzeko nahia.

Azpimarratzekoa da, gure produktuak beste supermerkatuetako produktuengandik bereizten direla herrialde ezberdin askotik ekarritakoak direlako eta ezberdinak direlako. Honako ezaugarriak dira, gure lehiakideengandik desberdintzen gaituena:

Berritasuna:

Salduko ditugun produktuak, hainbat herritarrentzako berriak eta ezezagunak izango dira, beraz, probatzeko gogoia edukiko dute. Gainera, kultura ezberdinetako elikagaiak ezagutzeko eta probatzeko aukera izango dute.

Lana Erraztea:

Gure enpresako web onlineari esker herritarrak ez dute bidaia luzerik egin behariko janaria erosteko. Honen ondorioz, gure enpresaren bitartez eskuragarri edukiko dituzte nahi dituzten produktuak.

Prezioa:

Prezioari dagokionez, nahiz eta gure produktuak kanpotik esportatuak izan, guk ahalik eta prezio eraginkorrean saiaturiko gara saltzen, ahalik eta bezero gehien erakartzeko eta zerbitzu on bat emateko.